

3. Konpromiso

Taldearen 8. bilera

osteguna, 2019.eko urriak 3

.....

Bileraren helburua

I-LABen gobernantza-ereduaren lehen bertsioa aurkeztea, 3. KTaren iritziak eta doikuntza-proposamenak biltzeko, eta proiektu pilotuak abian jartzeari buruzko informazioa ematea.

Parte-hartzaileak

Joseba Muxika, Javier Bikandi, Koldobike Uriarte, Goizalde Atxutegi, Nerea Ollokiegi, Itziar Solozabal, Mikel Barturen, Olatz Jiménez, Aitzol Batiz, Danel Alberdi, Mikeldi Zeberio, Antxon Gallego, Diego Fernández, Itziar Calvo, Miren Arbelaiz, Arrate Arias, Beatriz Acha, Josu Bilbao eta Raúl Gutierrez.

Gai-zerrenda

Gobernantza-ereduaren proposamena aurkeztea

Ane Abarrategik eta Itsaso Larramendik (TIPI) I-LABen gobernantza-ereduaren lehen bertsioa aurkeztu dute, honako puntu hauek garatuz:

1. Kidetza
 - Betekizunak
 - Eskubideak eta betebeharrak
2. Parte hartzeko espazioak
 - Talde estrategikoak
 - Taldeak proiektuka
 - Foro irekia
3. Kontu-ematea eta gardentasuna.

Halaber, 3. KTaren ekarpenak eta ikuspegiak nola sartu diren eta zer puntutan islatzen diren zehaztu dute.

Banakako balorazioa

I-LABen gobernantza-ereduaren proposamena jasotzen duten hiru taularen gainean, parte-hartzaile bakoitzak egoki ikusten dituen, ezegoki ikusten dituen eta zalantzak eragiten dizkion kontuak markatu ditu.

Balorazioa bateratzea

Azalpenak eta ekarpenak egiteko aukera ireki da, proposamenari buruzko lehen adostasunak eta desadostasunak mahai gainean jarritz.

Emandako iritziak [dokumentu honen "Akta" atalean](#) daude.

Doiketa kolektiboak

Gobernantza-ereduaren proposamena sakon aztertu behar da, eta sortzen dituen iritziak erregistratu, baita egokitzapen kolektiboko proposamenak egin ere.

Horretarako, lau mahaitan banatu da taldea, eta proposatu diren aldaketak erregistratzeko fitxa batean egin dute lan. Xedea ez da izan ados jartzea, baizik eta ahalik eta ekarpen eta ikuspegi gehien biltzea, I-LABen behin betiko gobernantza-eredua elikatuko baitute.

Planteatu diren doikuntzak [dokumentu honen "Akta" atalean](#) daude.

Bateratze-lana

Talde bakoitzeko kide batek bere mahaian doitu dituzten edukiak eta aldaketok proposatzeko arrazoiak azaldu ditu.

Proiektu pilotuak eta hurrengo urratsak

Koldobike Uriartek (Eusko Jaurlaritza) urrian abian jarriko diren proiektu pilotuak aurkeztu ditu, eta 3. konpromiso-taldeak lanean jarraitzeko eman beharreko hurrengo urratsak argitu ditu.

Akta

Balorazioa bateratzea

Jarraian, banakako balorazioa bateratzean adierazitako zenbait iritzi jasotzen dira.

Ereduari buruz, oro har:

- Eredua akigarria da, ez du malgutasunik transmititzen. Gai al gara horrelako eredu bati heltzeko? Zerbait sinpleagoa beharko litzateke, orain ez baitago hainbeste proiektu. I-LABek aurrera egin ahala, eredu ere garatuko da.
- Pixkanaka aplikatzeko proposamena oso ona da. Maximoen proposamena aldatu egin behar da, taldearen ikuspegiak hobeto jasotzeko eta minimo horiek gidatzeko.
- Aztertzen ari den eredu ulertzeko, eredu soziokratikoa azaldu behar da. Hori guztia nondik datorren esatea falta da, eredu hori ulertuta hobeto ulertzen baita proposamena. Hori aplikatzea barrutik berrikuntza egitea litzateke, eta hori garrantzitsua da; izan ere, gu berritzen ariko ginatke, beste batzuei berritzeko esateaz gain. Beste kultura bat dakar gure artera; erabakiak hartzeko beste modu batzuk.
- Orain dagoen benetako erronka I-LAB gisa funtzionatzen hastea da. Proposamen horri begiratuta, funtzionatzen has daitekeela uste da. Talde eragilea gara, pilotuak ditugu, baita irrikaz dagoen jendea ere. Proposamenak eredu ez-hierarkikoa, zeharkakotasuna eta besteen lanean konfiantza jartzen duen lan egiteko modua transmititzen ditu.

Kidetzari buruz:

- Konpromiso asko daude. Eskubideak eta betebeharrak oso kontzeptu gogorrak dira, berdin gertatzen da, besteak beste, egiturarekin, batzordearekin eta konpromisoarekin.
- Esperientziak baino gehiago, konpromisoa neurtu behar da, ez betebeharrak gisa, baizik eta nola ematen den.
- I-LAB ez da pertsona-talde bat, ordezkatzeko duten pertsonak dira. Kontzeptualizazio-akats bat dago. Erakundeak eta/edo pertsonak jartzea proposatzen da.
- Zalantzak daude kide izateko aukera zerk ematen dizunari buruz. Baldintza horiek berdinak izan behar al dute erakunde-, gizarte- eta aditu-eragileentzat?

Antolaketari eta erabakiak hartzeari buruz:

- Zalantzak daude batzordeekin; ikuspuntu praktikoa batetik, batzorde asko dira, eta nahasmena sortzen dute.
- Ez dago argi zein den erabaki estrategikoen esparrua. OGPn erabaki estrategikoak hartzen diren beste gune batzuk daude.

Nolako harremana izango dute? Zer estrategiaz ari gara hemen eta han?

Doiketa kolektiboak

Taldeetan jasotako informazioaren laburpena jasotzen da jarraian, gobernantza-ereduaren dokumentuko egituraren arabera antolatuta.

1/ Kidetza

1.1/Agente eragilea

Ohar orokorrak

- Garrantzitsua da eragile-tipologiaren arteko oreka esplizituki adieraztea (instituzionala, soziala eta aditua).
- Beharrezkoa da txandakatze-sistema bat definitzea. Zenbat denboran parte hartzen da talde eragilean?
- Beharrezkoa da talde eragileko parte-hartzaileen kopurua mugatzea (15, adibidez).
- Beharrezkoa da atxikimendua berrikusteko aukera jasotzen duen puntu bat sartzea, hau da, etorkizunerako konpromisorik eza, baldintzak aldatzen badira.
- Beharrezkoa da OGP Euskadirekiko konpromisoa izatea proiektuetan eta testuinguruaren ezagutzan.
- Beharrezkoa da Open Eskolako taldearekiko harremana nola artikulatzen den definitzea.
- 3. konpromiso-taldeak pilotua hastean talde eragilea zehaztea proposatzen da.

Betekizunak

Alderdi berritzaileak barne hartu dituzten *partaidetza-prozesuetan esperientzia* izatea.

- Esperientzia egiaztatzeko eta hori nola egin behar den zehazteko beharra.
- Esperientziaren betekizuna parte-hartzearen eremu guztietara zabaltzea, ez soilik prozesuetara.

Eskubideak

Parte hartzea. *Erabaki estrategikoak* hartzean parte hartzeko eskubidea, non zehazten baitira I-laben etorkizuneko ikuspegiarekin (orientazio estrategikoa, etorkizuneko lan-ildoak), sarearen iraunkortasunarekin (hitzarmenak erakundeekin, finantzaketa-iturriak, kontratazioak, salmenta eta proiektua hedatzeko aukerak) eta agenda partekatuarekin (edukiak, langile berriak, lurraldetasuna) lotutako gaiak.

- Erabaki estrategikoen definizioa argitzea: "I-LABen jarduerari eta funtzionamenduari buruz"
- Nola kudeatzen dira gai juridikoak? Kontratazioak, erantzukizun juridikoa, etab. Nola kudeatzen da zati finantzarioa?
- Kontratazioen eta hitzarmenen gaia argitzea. Norena da erabakiak hartu ondorengo erantzukizuna? Kontratazioak, emaitzak, etab.
- Lurraldetasunaren gaia argitzea.

Ordezkaritza. I-LABen ordezkaritza gauzatzeko eskubidea, haren kontakizuna, kultura eta ibilbidea transmitituz jardunaldi eta kongresuetan, bai eta hainbat erakunde eta entitateren aurrean ere.

- I-LABen ordezkaritza taldeko gainerako kideek jakin eta onartu beharko dute.

Betebeharrak.

- Lankidetzeta-kulturaren inguruko jokabide-kode etiko bat txertatu behar da agente-tipologia guztietan.

1.2/Agente aktiboak

Betekizunak

Aurretiko esperientzia *parte-hartze prozesuetan*.

- I-LABen proiektu pilotuak garatzen dituzten agenteek baino ez dute parte hartzen.

2/ Parte hartzeko guneak

Ohar orokorrak

- Gobernantza-proiektua oso konplexua da. Interesgarriagoa litzateke eredu xumeago bat egitea hasierarako.
- Ez da positibotzat jotzen egitura berriak sortzea.
- Erabaki estrategikoak hartzearen eta OGPko Talde Eragileak erabakiak hartzearen arteko talkaren gaiari heltzea.
- *Benchmarking* mugatua gobernantza-eredua ezartzeko.
- Soziokraziak izan behar du gure erreferentziako eredu?